

## ARIKETAK

- 1 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA**
1. Bederatzietan **hitzaldiarekin amaitzekotan** nengoela, entzuleak **galderekin hasi** eta hamaikak arte **jarraitu genuen eztabaidarekin**.  
\_\_\_\_\_
  2. Guk aurkeztu genuen egitasmoak ez du, zorionez, aldaketarik **jasan**.  
\_\_\_\_\_
  3. Idatziz agintzen ez badidazu, ni **ez noa** lan hori **egitera**.  
\_\_\_\_\_
  4. Epailea gaixotu egin zen eta erabaki gabe utzi zuen **kasua**.  
\_\_\_\_\_
  5. Alkatearen **gaixotasunaren kasuan**, alkateordea izango da mahaiburua.  
\_\_\_\_\_
  6. **Legalki** baduzu erabakiaren aurka jotzeko eskubidea, baina ez dut uste jaramonik egingo dizutenik.  
\_\_\_\_\_
  7. **Ikaslegoa** harrotuta dabil zuzendari berriaren aurka, baina **irakasleen kolektiboa** honen alde jarri da.  
\_\_\_\_\_
  8. Azkar etorri mahaira, bazkaria hoztuko **zaizula!**  
\_\_\_\_\_
  9. Oporrak hartuko ditudan? **Noski** hartuko **ditudala!**  
\_\_\_\_\_
  10. Liburu bat irakurri dut oso polita **dela**.  
\_\_\_\_\_
  11. Kalea begiak itxita zeharkatuko duzula? Ez duzula egiten!  
\_\_\_\_\_
  12. Enpresa bat osatu dugu elkarrekin: Joxek **kudeaketa-lana** egingo du eta ni, ordea, **salmenta-zereginetan** ibiliko naiz.  
\_\_\_\_\_
  13. Epaimahaiaren bozketan berdinketa izanez gero, **lehendakariitzak** erabakiko du.  
\_\_\_\_\_
  14. Oraindik ez duzu lana nire gustura egin: ez al duzu gogoan **beste egunean** zer esan nizun?  
\_\_\_\_\_

# ARIKETAK

## 2 ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. a) Dinosaurioak bizi ziren garaia Jurasiko **izenaz ezagutzen** da.  
b) Jurasiko **deritza** dinosaurioak bizi ziren garaia  
c) Jurasiko **deritza** dinosaurioak bizi ziren garaiari.  
d) Jurasiko **izeneko** garaian bizi ziren dinosaurioak.
2. a) Hamaika bileratan **jardun** dugu arazoa eztabaidatzen.  
b) Hamaika bileratan **ihardun** dugu arazoa eztabaidatzen.
3. a) Nik emandako aholkuak jarraitzen **badituzu**, laster batean amaituko duzu lana.  
b) Nik emandako aholkuei jarraitzen **badiezu**, laster batean amaituko duzu lana.
4. a) Eraikinean sute bat piztu zenez, bilera **etefeko** eta bertatik **irfeteko** agindu ziguten.  
b) Eraikinean sute bat piztu zenez, bilera **etetzeko** eta bertatik **irfetzeko** agindu ziguten.
5. a) Zertan jolastuko **dugu**?  
b) Zertan jolastuko **gara**?
6. a) Futbol-zelaia itxi digutenez, kanpoan **jokatu** beharko dugu hurrengo partida.  
b) Futbol-zelaia itxi digutenez, kanpoan **jolastu** beharko dugu hurrengo partida.
7. a) Horrekin ez dut ez **futbolera** ez **pilotara jolastu nahi**, beti haserretu egiten da eta.  
b) Horrekin ez dut ez **futbolean** ez **pilotan jolastu nahi**, beti haserretu egiten da eta.  
c) Horrekin ez dut ez **futbolera** ez **pilotara jokatu nahi**, beti haserretu egiten da eta.  
d) Horrekin ez dut ez **futbolean** ez **pilotan jokatu nahi**, beti haserretu egiten da eta.
8. a) Izangaiek nahi duten hizkuntza ofiziala erabil dezakete **oposaketako** ariketak egiteko.  
b) Izangaiek nahi duten hizkuntza ofiziala erabil dezakete **oposizioko** ariketak egiteko.
9. a) Ikastaroaren **ebaluaketa** egiteko, ezin dira hasierako helburuak bazter utzi.  
b) Ikastaroaren **ebaluazioa** egiteko, ezin dira hasierako helburuak bazter utzi.
10. a) Lana bitan ez egiteko, berebiziko ahalegina egin behar dugu **koordinaketan**.  
b) Lana bitan ez egiteko, berebiziko ahalegina egin behar dugu **koordinazioan**.
11. a) **Inprimaketa** arazoak direla eta, berandu kaleratu behar dugu aldizkaria.  
b) **Inprimatze** arazoak direla eta, berandu kaleratu behar dugu aldizkaria.
12. a) Erretiroa hartzeko adina duen arren, hortxe dabil hamazortzi **urtetako** neskek inguratuta beti.  
b) Erretiroa hartzeko adina duen arren, hortxe dabil hamazortzi **urteko** neskek inguratuta beti.
13. a) Hogeita hamar **metroko** soka bat beharko dugu leize horretara jaisteko.  
b) Hogeita hamar **metrotako** soka bat beharko dugu leize horretara jaisteko.
14. a) Udalean lau urtetan seiná hilabetez lan egin dudanez, bi **urteko** esperientzia hartuko didate kon-tuan...  
b) Udalean lau urtetan seiná hilabetez lan egin dudanez, bi **urtetako** esperientzia hartuko didate kon-tuan...
15. a) Blaise Pascalek hamazazpi uzte baizik ez zituela egin zuen **matematikako** liburu bat.  
b) Blaise Pascalek hamazazpi uzte baizik ez zituela egin zuen **matematikazko** liburu bat.
16. a) Euskal Herriaren Museoa Gernikan **aurkitzen da kokatuta**.  
b) Euskal Herriaren Museoa Gernikan **kokatzen da**.  
c) Euskal Herriaren Museoa Gernikan **kokatuta dago**.  
d) Euskal Herriaren Museoa Gernikan **dago**.
17. a) Udalerriko kultur elkarten **amankomuneko** egoitza da Kultur Etxea.  
b) Udalerriko kultur elkarte **guztien** egoitza da Kultur Etxea.  
c) Udalerriko kultur elkarten egoitza **komuna** da Kultur Etxea.
18. a) Bolada txar honi aurre egiteko, ezinbestekoa da jokalariek eta zaleek **konfiantza** ez galtzea.  
b) Bolada txar honi aurre egiteko, ezinbestekoa da jokalariek eta zaleek **konfidantza** ez galtzea.

19. a) Zure **azterketarekin konparatuta**, askoz emaitza hobea lortu dut nik.  
 b) Zure **azterketari konparatuta**, askoz emaitza hobea lortu dut nik.  
 c) Zure **azterketaren aldean**, askoz emaitza hobea lortu dut nik.
20. a) Hitzarmena sinatu baduzu, adostutakoa betetzeko **konpromezua** hartu duzu, ezta?  
 b) Hitzarmena sinatu baduzu, adostutakoa betetzeko **konpromisoa** hartu duzu, ezta?
21. a) Astean ez, baina asteburuan **jende kopuru handia** biltzen da auzoko tabernan.  
 b) Astean ez, baina asteburuan **jende asko** biltzen da auzoko tabernan.  
 c) Astean ez, baina asteburuan **lagun kopuru handia** biltzen da auzoko tabernan.  
 d) Astean ez, baina asteburuan **lagun asko** biltzen da auzoko tabernan.  
 e) Astean ez, baina asteburuan **jendetza handia** biltzen da auzoko tabernan.
22. a) Herriko Elkartegiak 800 bat milioi pezeta **kostatu du**.  
 b) Herriko Elkartegia 800 bat milioi pezeta **kostatu da**.
23. a) Hau amaitzen laguntzen **badidazu** etxeraino lagunduko **zaitut**.  
 b) Hau amaitzen laguntzen **nauzu** etxeraino lagunduko **dizut**.  
 c) Hau amaitzen laguntzen **badidazu** etxeraino lagunduko **dizut**.  
 d) Hau amaitzen laguntzen **nauzu** etxeraino lagunduko **zaitut**.

### 3 HIZTEGI BATUAREN ITZULERA

Euskaltzaindia hasia da Hiztegi Batuaren bigarren orrazketa egiten. Hona hemen sarrera berrien gaineko hainbat ariketa:

1. a) Ezin dizugu mailegua eman, **abalarik** ez duzulako lortu.  
 b) Ezin dizugu mailegua eman, **abalik** ez duzulako lortu.
2. a) Gurasoek **abalatzea** lortzen badut, emango al didazue mailegua?  
 b) **Abala** gurasoek **ematea** lortzen badut, emango al didazue mailegua?
3. a) Autobuseko berogailuagatik, **abaniko** bat erosi behar izan dut.  
 b) Autobuseko berogailuagatik, **haizemaile** bat erosi behar izan dut.
4. a) Bileran dena eztabaidatu genuen: urtean egindakoa, diru-egoera, hurrengo urterako egitasmoak **eta abar luze bat**.  
 b) Bileran dena eztabaidatu genuen: urtean egindakoa, diru-egoera, hurrengo urterako egitasmoak **eta abar, eta abar**.
5. a) Nahi zuen emakumearekin ez zioten ezkontzen utzi eta horregatik **abdikatu zen** Edward VIII.a.  
 b) Nahi zuen emakumearekin ez zioten ezkontzen utzi eta horregatik **abdikatu zuen** Edward VIII.ak.
6. a) Baserrian denetarik daukagu: abelgorriak eta **abel xeheak**.  
 b) Baserrian denetarik daukagu: abelgorriak eta **abeltxeak**.  
 c) Baserrian denetarik daukagu: abelgorriak eta **abere xeheak**.
7. a) Nekazaritza Eskolako erdiko zikloan lorezaintza eta **abere hazkuntza** daude.  
 b) Nekazaritza Eskolako erdiko zikloan lorezaintza eta **abelazkuntza** daude.
8. a) Futbolaria izatea ez da **aberasbide** makala.  
 b) Futbolaria izatea ez da **aberspide** makala.
9. a) **Aberri Eguna** Aste Santuko igandean da beti.  
 b) **Aberri-eguna** Aste Santuko igandean da beti.  
 c) **Aberri eguna** Aste Santuko igandean da beti.
10. a) Gure umeak ez du oraindik irakurtzen: **abedea** ikasten dabil.  
 b) Gure umeak ez du oraindik irakurtzen: **abezea** ikasten dabil.  
 c) Gure umeak ez du oraindik irakurtzen: **alfabetoa** ikasten dabil.
11. a) Lasai egon: **abisatuko dizugu**.  
 b) Lasai egon: **abisatuko zaitugu**.

# SOLUZIOAK

## 1 BERRIZ IDATZI ESALDIOK, ZALANTZA-DANTZA LIBURUXKAKO AHOLKUEN ARABERA

1. Bederatzietan hitzaldia amaitzekotan nengoela, entzuleak galdezka hasi eta hamaikak arte jarraitu genuen eztabaidan.
2. Guk aurkeztu genuen egitasmoak ez du, zorionez, aldaketarik izan.
3. Idatziz agintzen ez badidazu, nik ez dut lan hori egingo.
4. Epailea gaixotu egin zen eta erabaki gabe utzi zuen auzia.
5. Alkatea gaixorik bada, alkateordea izango da mahaiburua.
6. Legez, baduzu erabakiaren aurka jotzeko eskubidea, baina ez dut uste jaramonik egingo dizutenik.
7. Ikasleak harrotuta dabilta zuzendari berriaren aurka, baina irakasleak honen alde jarri dira.
8. Azkar etorri mahaira, bazkaria hoztu egingo zaizu eta!
9. Oporrak hartuko ditudan? Noski, hartuko ez ditut bada!
10. Liburu bat irakurri dut, oso polita. / Liburu bat irakurri dut oso polita dena. / Oso liburu polita irakurri dut.
11. Kalea begiak itxita zeharkatuko duzula? Ezetz egin!
12. Enpresa bat osatu dugu elkarrekin: Joxe kudeaketan ibiliko da eta ni, ordea, salmentan. / ... Joxek kudeatu eta nik, ordea, saldu egingo dut.
13. Epaimahaiaren bozketan berdinketa izanez gero, mahaiburuak erabakiko du.
14. Oraindik ez duzu lana nire gustura egin: ez al duzu gogoan lehengo egunean zer esan nizun?

## 2 Zuzena edo egokiena aukeratu, zalantza-dantza liburuxkako aholkuen arabera

- |            |  |
|------------|--|
| 1. C eta D | 13. A                                  |
| 2. A       | 14. A                                  |
| 3. B       | 15. A                                  |
| 4. A       | 16. D                                  |
| 5. B       | 17. B eta C                            |
| 6. A       | 18. A                                  |
| 7. D       | 19. C                                  |
| 8. B       | 20. B                                  |
| 9. B       | 21. B, D eta E                         |
| 10. B      | 22. B                                  |
| 11. B      | 23. C (Hegoaldean) eta D (Iparraldean) |
| 12. B      |  |

## 3 Hiztegi batuaren itzulera

1. B
2. B
3. B hobetsita
4. B
5. A
6. C
7. B
8. A
9. B eta C
10. C
11. A (Hegoaldean) eta B (Iparraldean)